



Oihan hostodunak
eta oihan orrazdunak

4



Azalpena eta oharrak

Oihan hostodunak ala oihan orrazdunak? Euskal Herriko oihan eremuak bilakaera gogorra jasan du bereziki hegoaldeko probintzietan zuhaitz orrazdunak nasaiki landatuz geroz. Funtsezko arrazoia : zuhaitz orrazdunak zuhaitz hostodunak baino biziki lasterrago hazten dira eta gainera paper lantegietan baliatzen. Baina ondorioz paisaiak ez dira lehengoak... Bestalde lurra bera pobretuz doa. Iparraldeko probintzietan aldiz, ez dute oihangintzako politika bera eraman ; aitzitik, bioaniztasuna eta zuhaitz-moten nahasketa begiratu dute, adibidez oihanazainek zuhaitzi irregularra lehenetsiz.

Oihanen kokagune eta paisaiei ohartaraziz, oihan mota desberdinak ezagutarazten ditugu.

Nondik has

Ikasleek oharrak egiten dituzte urtaroen arabera gertatzen diren oihan itxurei buruz.

Pinaburu edo hosto zenbait ekarri dituzte ikasgelara. Gehiago jakin nahi dute.

Mundu zabaleko oihanei interesatu dira eta honelako galdeak badituzte : zergatik oihan borealak gutiz-gehienak zuhaitz orrazdunak osatuak dira ?

Haurrengandik entzun daitezkeen galdeak

Zergatik hainbeste kolore larrazkenean gure oihanetan ?

Mendietako oihanak eta zelaletakoak berdinak ote dira ?

Fruituak eta hostoak bildu ondotik jakin nahi dute gauza bakoitzaren jatorria eta beraz zuhaitzen izenak.

Jarduera batzuk

Ikas-ibilaldia egin daiteke oihan misto (bi espezieetako zuhaitzak dituen oihan) batean :

Oihaneko zuhaitz hostodun guneak eta zuhaitz orrazdun guneak bereizi.

Bi oihanpeen ikerketa konparatiboa egin : lurzorua berdina ote da ? Ikus hostoen kolorea, oihaneko belarrak, animaliak...

Ibilaldia egin aitzin beharrezkoa da hurrekin galde batzuk prestatzea gisa hartan beha dezaten lekura heltzean.

Oihanean behar diren neurketak eta bilketak egin ondoan, ustiapena egin.

Zuhaitz hosto iraunkorrak eta zuhaitz hosto erorkorrak zer diren ikus. Iker eta beha. Taldean konpara. Irakasleak ere bere azalpenak ekar ditzake.

Oihan-paisaiei beha argazki, diapositiba eta CD-ROMak baliatuz.

Haurren irudikapena lehenetsiz, margolanak ere erabil.

Ikasiaren finkatzeko jarduerak

Oihaneko ibilaldiaren bilduma egin (idazki, arte plastikoak, ahots muntaia...).

Ikasleek bakarkako lana egin dezakete fitxak baliatuz.



4/1

4/2

4/3

4/4

ikaslearen fitxak

Jakintasunak

Argazkien bidez paisaiak identifikatu.

Lekuaren irudikapena (planoetan, mapetan....) nola egiten den ohartu.

Dokumentazio iturri desberdinak erabili.

Informazio bilketa hasierako galdeari josten jakin.

Dokumentu andana batetik ondorioztatu.

Oihanari dagozkion gai ekonomikoak eta ekologikoak ulertu.

Zuhaitz hostodunak

Zuhaitz hostodunak

Zuhaitz hostodunek gutiz gehienek hostoak erorkorak dituzte, erran nahi baita udazkenean galtzen dituztela.

Udaberrian aldiz hostoak berriz sortzen dira.

Salbuespenak : artea, gorostia, erramua... hostodunak dira baina hosto iraunkorak dituzte.

Zuhaitz hostodun batzuek loreak petaloz osatuak dituzte (gereziiondoa adibidez), beste batzuek aldiz kerbak dakartzate (hurritza).

© Eusko Jaurlaritza, Francisco Garin



1. zuhaitza
2. lorea
3. hostoa eta fruitua
4. azala

Zuhaitz hostodunak : hostoak dituzten zuhaitzak. *Zuhaitz hostozabalak* ere erraiten da.

Zuhaitz orrazdunak : hostoen ordez orratzak dituzten zuhaitzak.

Hosto iraunkorak : beti berde egoten diren hostoak. Ez dira urtero erortzen.

Hosto erorkorak : urtero erortzen diren hostoak.

Koniferoak : zuhaitzak dira ; fruituak konoak dira.

Erretxinadunak : erretxina hornitzen duten zuhaitzak.

Zuhaitz orrazdunak

Hostoen ordeztatik orratzak dituzten zuhaitzak

Hostoak orratzak dira eta neguan ez dira erortzen, beraz hosto iraunkorrak dituzte orrazdunek. Alertzea orratzak udazkenean galtzen dituen zuhaitz orrazdun bakarra da.

Orrazdunek badituzte hodiak (eroate hodiak) enborrean eta gehienetan erretxina hodi horietan dabil. Zaurien artatzeko ona da erretxina. Parasitoak edo beste intsektu xurgatzaileak bikeztatzen eta desagerrarazten ditu eta zuhaitzaren hondakinak biltzen.


Kasu ! Erretxina ez da izerdia edo sapa.

Zuhaitz orrazdunen fruituak gehienetan konoak dira (pinaburu). Konoak dakartzaten zuhaitzak *koniferoak* deitzen dira.



- 1. zuhaitza
- 2. lorea
- 3. pinu burua
- 4. azala

Zuhaitz hostodunak, zuhaitz orrazdunak : laburbiltzeko...



Salbuespenak : alertzea, artea eta itsas-pinua.

Alertzeari orratzak erortzen zaizkio larrazken guziz; zuhaitz orrazdunetarik bakarra da. Alertzea ez da

Pirinioetako zuhaitza baina oihaneko langileek Alpeetatik ekarri digute. Izei gorriarentzat berdin gertatu da.

Artea Frantziako hegoaldean aurkitzen den zuhaitza da. Zuhaitz hostoduna izanik ere, neguan hostoak ez ditu galtzen. Pirinioetan aurki daiteke Hego aldeko mazeletan (eguzki begietan) eta haizolbean.

Itsas-pinoa itsas hegi atlantikoan eta beraz ordokietan kausi daitekeen zuhaitz orrazduna da.



Euskal Herriko oihan motak

Gure inguruko izadian badira arauak. Zuhaitzak eta oihanak klimari, altitudeari, lurzoruari... egokitzen zaizkie. Hona gure eskualdeko oihan mota nagusiak :



Oihan hostodunak

Zuhaitzek hostoak badituzte eta kasik denek neguan galtzen dituzte; hosto *erorkorrak* deitzen dira, beraz. Euskal Herrian harizti kandundunak dira nagusi, bereziki zelaietan. Iratiko oihana pagadia da, Euskal Herriko oihan hostodunetan ezagunenetarik eta handienetarik bat.

Oihan orrazdunak

Zuhaitz orrazdunek orratzen gisako hostoak dituzte. Hosto hauek ez dira hostodunenak bezala urtero erortzen.

Euskal Herriko mendi mazeletako izei oihanak beren baitakoak dira baina jendeek landaturiko izeiak ere badira zelaietan eta mendietan.



Oihan mistoak edo bikoitzak

Izenak dioen bezala zuhaitz orrazdunek eta zuhaitz hostodunek osatua dira. Oihan misto naturalak, pagoz eta izeiez osatuak, maila arteko mendietan aurki daitezke.


Hauek Pirinioetako oihanik ederrenak ditugu.

Oihan idoitsua

Oihan idoitsua ur bazterretako oihanari deritzo. Lur zola ardura urperaturik dagoen guneeetan edo ibar hezeetan aurki daiteke oihan idoitsua. Ingurumen latza jasaten dituzten zuhaitz soraioez osatua da (haltza, zumea, zurzuria, lizarra...)



Oihan moten azalera eskualdeka



Euskal Herriko oihan hostodunak eta oihan orrazdunak : ehunekoak eskualdeka

Oihan moten azalera eskualdeka					
motak	Araba	Bizkaia	Nafarroa	Gipuzkoa	Iparraldea
hostodunak %	75	23	65	29	96
orrazdunak %	25	77	35	71	4

Iturria : Euskal herriko geografia, ETOR OSTOA S.A.